

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2018ko urtarrilaren 1etik 5erako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA.
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...


➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: KPI



Datuaren analisia

Urte arteko datuei dagokienez, Europako inflazioak hamarren bat egin zuen behera abenduan, % 1,4raino, eta azpiko tasa % 0,9an mantendu zen. Jardueraren eta petrolio gordinaren prezioaren gorakada handia izan bazen ere, inflazioa EBZk ezarritako % 2ko helburutik urrun geratu zen. Horiek horrela, diru-pizgarriak mantentzeaz gain, baliteke 2018an osoan interes-tasak ez igotzea. Hala ere, banku zentralerako hainbat kide diru-politikari dagokionez azeleragailutik oina altxatzeko eskatzen hasi dira dagoeneko.


Adierazlearen azalpena

KPIa hilerok prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: MANUFAKTUREN/ZERBITZUEN PMI



Datuaren analisia

Manufakturen eta zerbitzuen sektoreko enpresen aurreikuspen-indizeek gora egin zuten abenduan, azken urteetako maximoetara helduz. Enpresen erosketa-kudeatzaileen konfiantza orokorra izan zen Euroguneko herrialde guztietan, eta euroaren indarra gorabehera lortu zen hori. Munduko merkataritzaren hazkundeak konpentsatzen du alderdi hori, Euroguneko esportazioen alde egiten ari baita.

Adierazlearen azalpena

Euroguneko zerbitzuen eta manufakturen sektoretako 5.000 enpresari baino gehiagori hileroko bidaltzen zaien galdetegi baten erantzunetatik lortzen da PMI Konposatua. Bi sektore horien aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: MANUFAKTUREN/ZERBITZUEN ISM



Datuaren analisia

Manufakturen sektoreko ISM enpresen aurreikuspen-indizeak gora egin zuen berriro abenduan, eta aurreikuspenen arabera jarduerak datu onekin jarraituko du, 2018a nahiko aurreratuta dagoen arte. Azterketa zehatzak adierazten du hobekuntza handia izan dutela ekoizpen sektore guztiek. Gainera, Trump presidenteak berriki onartu duen zerga-beherapenez baliatu ahal izango dira ziurrenik. Zerbitzuen sektoreko indizeak ustekabean egin zuen behera abenduan, baina maila altuan jarraitu zuen. Bada, beherapen hori uda amaieran eta udazkenean urakanaren eraginak konpontzeko lortu zen maila ezin altuagoen zuzenketa izan liteke.

Adierazlearen azalpena

ISM zerbitzuen/manufaktura-indizeak konpainia amerikar nagusietako erosketen arduradunei hileroko egiten zaien inkesta bat du oinarri. Bertan, manufaktura-sektorearen egoeren inguruan galdetzen zaie. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus.
01/08	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	0.5
01/08	Eurogunea	Urte arteko xehekako salmentak	% 2,4
01/08	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	114.8
01/09	Japonia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	45.0
01/09	Alemania	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	% 3,9
01/09	Alemania	Balantza komertziala	21.3b
01/09	Frantzia	Balantza komertziala	-4700m
01/09	Eurogunea	Langabezia-tasa	% 8,7
01/10	Txina	Urte arteko KPIa	% 1,9
01/10	Frantzia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 2,6
01/10	Erresuma Batua	Urte arteko industria-ekoizpena	% 1,8
01/10	Erresuma Batua	Balantza komertziala	-1500 £
01/10	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
01/10	Erresuma Batua	NIESR BPGd-aren kalkulua	% 0,5
01/11	Espainia	Urte arteko SA industria-ekoizpena	% 3,3
01/11	Alemania	Urte arteko BPGd NSA	% 2,3
01/11	Eurogunea	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	% 3,0
01/11	Eurogunea	EBZren diru-politikari buruzko akten argitalpena	0
01/11	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	245k
01/12	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 1,2
01/12	Espainia	Urte arteko KPIa	% 1,2
01/12	Estatu Batuak	Urte arteko KPIa	% 2,1
01/12	Txina	Balantza komertziala	37.22b \$

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Burtsa-indizeek gogor hasi zuten urtea, gora egin baitzuten makro datu onen eta arrisku politikoen murrizketari esker. Inguru makroari begira, mundu-mailako enpresa-aurreikuspenen adierazleek hobera eginen jarraitu zuten, nahiz eta dagoeneko oso maila altuan zeuden. Bestetik, inflazio-tasek ez zuten gora egitetik lortu, eta, horregatik, banku zentralak ez dute diru-pizgarriak kentzeko inolako presarik. Politikari begira, Alemanian Merkelen CDU alderdia eta SPD sozialistak koalizio-gobernu bat eratzeko bidean jarraitzen dute. Koreako penintsulan, bi herrialdeek elkarriketei ekin zieten berriro; urrats garrantzitsu urduritasuna baretzeko eta gerra ekiditeko. Italian, bestetik, hauteskundeak deitu ziren martxoaren 4rako, eta Movimento 5 Stelle mugimendua mendean hartzeko sortu den Lega Nord eta Forza Italia alderdien arteko koalizioa da hautagai faboritua.

ERRENTA FINKOA:

Datu makro positiboari esker, kurba amerikarrak, modu paraleloan, 7 op egin zuen gorantz. Nolanahi ere, mugimendu horrek ez zuen ia eraginik izan Europako kurban. Bada, Alemaniako 2 eta 10 urterako bonuen errentagarritasunek 2 eta 12 op soilik egin zuten gora, hurrenez hurren. Espainiako arrisku-prima 5 op estutu zen, 108 puntutaraino. Italia eta Portugalgo diferentzialak 2 eta 1 op estutu ziren, hurrenez hurren. Kreditu-merkatuan hobekuntza arinak egon ziren, ingurune makro onari esker.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Urte amaierako joerari jarraikiz eta Euroguneko ekonomiaren une goxoa islatuz, dibisa komunak % 0,2ko balio handitzea izan zuen dolarraren aurrean, eta % 0,72koa yenaren aurrean. Petrolio gordinaren prezioak gora egin zuen berriro, tenperatura baxuek eta Irango matxinadek eragindako AEBen eskariaren igoeragatik batik bat. Brenta 68 \$/b mailaraino iritsi zen.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2018
MSCI WORLD (Local)	1.625,28	2,46	2,46
IBEX 35	10.411,40	3,66	3,66
DJ EURO STOXX 50	3.607,63	2,96	2,96
DJ STOXX 50	3.232,09	1,71	1,71
FTSE	7.724,22	0,47	0,47
S&P 500	2.743,15	2,60	2,60
Dow Jones	25.295,87	2,33	2,33
NASDAQ	7.136,56	3,38	3,38
NIKKEI 225	23.714,53	4,17	4,17
MSCI GORAKORRAK (Lo)	62.689,64	2,97	2,97
MEXBOL	49.887,75	1,08	1,08
BOVESPA	79.071,47	3,49	3,49
SHANGHAI	3.552,17	2,56	2,56
Errusia Rts Mosku	1.219,89	5,67	5,67

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald 2018
ALEMANIA 2 URTE	-0,61	0,02	0,02
ESPAINIA 2 URTE	-0,38	-0,03	-0,03
AEB 2 URTE	1,96	0,08	0,08
ALEMANIA 10 URTE	0,44	0,01	0,01
ESPAINIA 10 URTE	1,52	-0,04	-0,04
AEB 10 URTE	2,48	0,07	0,07
ALEMANIA 30 URTE	1,27	0,01	0,01
ESPAINIA 30 URTE	2,80	-0,05	-0,05
AEB 30 URTE	2,81	0,07	0,07
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/22	43,62	-1,30	-1,30
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/22	222,07	-10,36	-10,36

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2018
Dolarra / Euroa	1,20	0,21	0,21
Yena / Euroa	136,33	0,72	0,72
Libera / Euroa	0,89	-0,09	-0,09

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2018
Petrolio (Brendt)	68,08	1,89	1,89
Urrea	1.319,35	1,25	1,25

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.